

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3789

AGINDUA, 2015eko uztailaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2015eko deialdiaren oinarriak onartzeko dena.

Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari buruzko Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 (EE) Erregelamenduaren bidez, Nekazaritzako Europako Berme Funtsa eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa sortu ziren, hurrenez hurren, merkatuko neurriak eta beste neurri batzuk finantzatzeko eta landa-garapenerako programak finantzatzeko.

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez landa-garapenerako laguntza emateko eta Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduak, berriz, Europar Batasunak Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez landa-garapenerako ematen duen laguntzari buruzko arau orokorrak xedatzen ditu —Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketa, kudeaketa eta jarraipena arautzeko eta Kontseiluaren 352/78 (EE), 165/94 (EE), 2799/98 (EE), 814/2000 (EE), 1290/2005 (EE) eta 485/2008 (EE) erregelamenduak indargabetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren bidez sortu zen Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa—: arautzen du zer helburu lortzen lagundu behar duen landa-garapenerako politikak eta zein diren Europar Batasunaren lehentasunak landa-garapenaren alorrean; landa-garapenerako politikaren testuinguru estrategikoa taxutzen du; eta landa-garapenerako politika aplikatzeko hartu beharreko neurriak zehazten ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programa prestatu da, eta Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C(2015) 3479 azken erabakiaren bidez onartu. Europar Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin finantzatzen dituzten neurriak hartzen ditu Programak. Bada, M04.2. neurria eta M08.6. neurriaren zati bat garatzen ditu agindu honek, hurrenez hurren, II. eta III. kapituluetan: M04.2. neurria nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egiteko laguntzari buruzkoa da, eta M08.6. neurria, berriz, basogintza-teknologietan inbertitzeko eta basogintzako produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzari buruzkoa.

Landa-garapenerako politikaren arabera, Europar Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin finantzatzen dituzten neurriak eta Estatuak ematen dituen laguntzak bateragarriak dira. Hala ere, Estatuak ematen dituen laguntzek muga jakin batzuen barnean egon behar dute, eta kontrol-neurri jakin batzuk bete behar dituzte, koherentzia izan dadin bi politiken artean eta Tratatuaren 87., 88. eta 89. artikuluek lehiakortasunaren alorrean xedatzen dituzten arauak hertsiki bete daitezzen; izan ere, begien bistakoa denez, landa-garapenaren alorrean ere aplikatu behar dira Tratatuaren 87., 88. eta 89. artikuluek.

2014 eta 2020 artean, Europako Itsas eta Arrantza Funtsa arautzeko eta Kontseiluaren 2328/2003 (EE), 861/2006 (EE), 1198/2006 (EE) eta 791/2007 (EE) erregelamenduak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1255/2011 (EB) Erregelamendua indargabetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 508/2014 (EB) Erregelamenduak eratzen du arrantzako eta akuikulturako produktuentzako laguntzen Erkidegoko erreferentziazko arauzko esparrua. Arrantza Politika Erkidearen 2013ko erreformarekin bat finkatutako helburuak lortzeko finantza-tresna da aipatutako erregelamendua.

Haren bidez, Europako Arrantza Funtsa Europako Itsas eta Arrantza Funtsa bihurtu zen. Bada, Europako Itsas eta Arrantza Funttsaren helburua Arrantza Politika Erkidearen, Itsas Politika Batera-tuaren eta Europa 2020 estrategiaren helburuak lortzen laguntzea da, eta, horretarako, aipatutako erregelamenduko zioen azalpenak dioenez, honako hau du lehentasuntzat: arrantza- eta akuikultura-sektoreak ingurumenaren ikuspegitik jasangarriak, baliabideen erabileraren ikuspegitik eraginkorrak, berritzaileak eta lehiakorrak izan daitezen bultzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Europako Itsas eta Arrantza Funttsaren barruko 2014-2020 aldirako Espainiako Arrantza Sektorerako Programa Eragilearen pean dago —izapidetze-prozesuaren azken fasean dago programa—.

Bestalde, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluekin bat nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako eta landa-inguruneetarako laguntzen zenbait kategoria barne-merkatuarekin bateragarri deklaratzeko Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluekin bat arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizten, eraldatzen eta merkaturatzen diharduten enpresentzako laguntzen zenbait kategoria barne-merkatuarekin bateragarri deklaratzeko Batzordearen abenduaren 16ko 1388/2014 (EB) Erregelamenduak xedatzen dute zer baldintza eta eskakizun bete behar dituzten laguntzek Estatu kideek diruz lagundu ditzaten (Estatuek ematen dituzten laguntza izan daitezen) eta Europar Batasunak baimendu behar izan ez ditzan. Alegia, baldin eta erregelamendu horiek aipatzen dituzten laguntzak arautzen eta ematen dituztenean estatuek bete egiten badituzte erregelamenduak, laguntzak bateragarriak dira merkatu erkidearekin eta, horrenbestez, ez da beharrezkoa Europar Batasunak baimendu ditzan; aitzitik, nahikoa da kasuan-kasuan dagokion epean jakinaraz daitezen.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legearekin eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin bat,

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearekin bat —26.4. artikulua arabera, «Jaur-laritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute»—, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Deialdia.

Nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2015eko deialdiaren oinarriak onartzea —agindu honen eranskinak dakartza—.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete agindu honen aurka, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean, agindua argitaratu eta hilabetean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua argitaratu eta bi hilabetean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.— Deialdiaren ebazpena.

Agindu honen bidez onartutako oinarrien IV. kapituluak arautzen dituen laguntzak ordaintzeko, beharrezkoa izango da Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren barruko 2014-2020 aldirako Espainiako Arrantza Sektorerako Programa Eragilea onartzea —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 508/2014 (EB) Erregelamenduaren esparruan garatzen ari da programa hori, eta deialdiaren ebazpenak berariaz adieraziko du hura onartu izana—.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 29a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

I. KAPITULUA

ZATI OROKORRA

1. artikulua.— Xedea eta izaera.

1.— Agindu honen xedea nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2015eko deialdia onartzea da.

2.— Agindu honen esparruan ematen diren laguntzak ez dira izango itzuli behar diren horietarikoak.

3.— Inbertsio-programa jakinetarako emango dira laguntzak. Zenbat denboran gauzatzen diren proiektuak eta noiz egiten diren ordainketak, urte bat edo zenbait urte iraungo dute programek.

2. artikulua.— Laguntza-ildoak.

Laguntza hauek emango dira agindu honetako 1. artikuluko xedea lortzeko:

1.— Tratatuaren I. eranskinak aipatzen dituen nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egiteko laguntzak.

Agindu honetako II. kapituluak arautzen ditu, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 17.1.b) artikulua eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruko M04.2. neurriaren barruan daude —1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 17.1.b) artikulua garatzen eta aplikatzen du M04.2. neurriak, eta nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egiteko laguntzari buruzkoa da—.

2.— Basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak.

Agindu honetako III. kapituluak arautzen ditu, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 26. artikulua eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruko M08.6. neurriaren barruan daude —1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 26. artikulua garatzen eta aplikatzen du M08.6. neurriak, eta basogintza-teknologietan inbertitzeko eta basogintzako produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzari buruzkoa da—.

3.— Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak.

Agindu honetako IV. kapituluak arautzen ditu, eta maiatzaren 15eko 508/2014 Erregelamenduaren eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren barruko 2014-2020 aldirako Espainiako Arrantza Sektorerako Programa Eragilearen barruan daude.

4.— Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan bestelako inbertsioak egiteko laguntzak.

Agindu honetako V. kapituluak arautzen ditu, eta Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduekin eta Batzordearen abenduaren 16ko 1388/2014 (EB) Erregelamenduekin bat jakinarazi beharrekoak ez diren laguntzen tratamendu bera izango dute.

3. artikulua.— Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, honela ulertuko dira jarraian datozen kontzeptuak:

- 1.– Laborantza: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza.
- 2.– Elikagaigintza: nekazaritzako, arrantzako, itsas haztegietako, ehizako eta mikologiako elikagaien eta beste jatorri natural batzuetakoen ekoizpena, eraldaketa, ontziratzea eta merkaturatzea.
- 3.– Handizkako merkataritza: noren izenean eta noren kontura nekazaritzako eta arrantzako produktuak erosteko eta haiek handizkako beste merkataritza batzuei eta txikizkako merkatariei saltzeko lanbidea. Jatorriko handizkariak lonjan eta jatorrizko merkatu gisa jarduteko baimena duten saltokietan erosten dituzte produktuak lehen aldiz.
- 4.– Txikizkako merkataritza: noren izenean eta noren kontura nekazaritzako eta arrantzako produktuak erosteko eta haiek kontsumitzaileei saltzeko lanbidea. Jatorriko txikizkariak lonjan eta jatorrizko merkatu gisa jarduteko baimena duten saltokietan erosten dituzte produktuak lehen aldiz.
- 5.– Salmenta-zirkuitu laburra: nekazaritza-ustategi bakoitzaren inguruko eremu geografikoa, ustategian eraldatutako produktuak saltzen diren lekua.
- 6.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresak: nekazaritzaren eta elikagaigintzaren esparruan jarduten duten nekazaritza-ustategi eta enpresen multzoa.
- 7.– Krisian dauden enpresak: beren finantza-baliabideak eta beren akziodun eta hartzekodunak emateko prest daudenak erabiliz galerak kitatzeko gai ez diren enpresak eta, kanpoko esku-hartzerik ez badago, galeren ondorioz epe labur edo ertainean ia seguru desagertuko direnak; hori guztia, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).
- 8.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industria: nekazaritzako eta/edo elikagaigintzako produktuak maneiatzeko eta haietatik produktu berriak eratortzeko ekipamendu-ondasunen multzoa eta horiek beharrezkoak dituzten instalazio osagarriak, enpresa autonomo baten moduan jarduteko gaitasuna dutenak.
- 9.– Lonja: autonomia-erkidegoetan arrantza-sektorea antolatzeke eskumena duten organoek baimendutako instalazioez hornitutako lekua, zeina portuan dagoen eta zeinetan arrantza freskoko produktuen lehorreratzea kontrolatzen den eta arrantzako produktuak erakusten eta lehenengo aldiz handizka saltzen diren.
- 10.– Bertako lehengaia: Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizten den nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako lehengaia.
- 11.– Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak: mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak halakotzat hartzen dituen enpresa-kategoriak.
- 12.– Arrantzako produktuak: arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean merkatuen antolamendu erkidea ezartzeko Kontseiluaren abenduaren 17ko 104/2000 (EE) Erregelamenduaren 1. artikulua aipatzen dituen itsasoko eta barrualdeko uretako produktuak eta akuikulturakoak.
- 13.– Inbertsio-proiektua: produktu komertzialak eskuratzeko eta haien produktibitatea eta kalitatea hobetzeko azpiegitura, ekipamendu, instalazio eta makinak multzoa.
- 14.– Arrantza-sektorea: arrantzako eta akuikulturako produktuak ekoizteko, eraldatzeko eta

merkaturatzeko jarduera guztiek osatzen duten sektore ekonomikoa.

- 15.– Arrantzako eta akuikulturako produktuen eraldaketa eta merkaturatzea: lehorreratzeko edo biltzen direnetik xeheka saltzen diren arte arrantzako eta akuikulturako produktuak maneiatzeko, tratatzeko, prestatzeko, ekoizteko eta banatzeko katea osatzen duten lanen multzoa, txikizkako merkataritza barnean hartzen ez duena.

4. artikulua.– Finantzaketa.

1.– 2015ean, 14.798.829 euro erabiliko dira II. eta III. kapituluetakoa laguntzak finantzatzeko. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatzeko da zenbateko hori, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat, eta honela banatuko da:

A.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura, finantzaketa 6.955.450 eurokoa izango da, eta honela banatuko da:

1.– II. kapitulua finantzatzeko, 5.464.255 euro erabiliko dira. 2.227.621 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.236.634 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

2.– III. kapitulua finantzatzeko, 1.491.195 euro erabiliko dira. 400.000 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.091.195 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

B.– Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan, finantzaketa 7.843.379 eurokoa izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak dagozkion ordainketak eginda aplikatuko da zenbateko hori, eta honela banatuko da:

1.– II. kapitulua finantzatzeko, 6.161.819 euro erabiliko dira. 2.511.998 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.649.821 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

2.– III. kapitulua finantzatzeko, 1.681.560 euro erabiliko dira. 451.064 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.230.496 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

2.– 2015ean, 1.951.000 euro erabiliko dira IV. kapituluko laguntzak finantzatzeko. Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatzeko da zenbateko hori, eta honela banatuko da:

A.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura, finantzaketa 487.750 eurokoa izango da. 237.750 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 250.000 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

B.– Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren kontura, finantzaketa 1.463.250 eurokoa izango da. 713.250 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 750.000 euro, 2016. urteko konpromiso-kredituari.

3.– 2015ean, 504.800 euro erabiliko dira V. kapituluko laguntzak finantzatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatzeko da zenbateko hori, osorik, eta eta Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduarekin eta Batzordearen abenduaren 16ko 1388/2014 (EB) Erregelamenduarekin bat jakinarazi beharrekoak ez diren laguntzen tratamendu bera izango du.

304.800 euro 2015. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 200.000 euro, 2016. urterako konpromiso-kredituari.

4.– Aurrekontu-ekitaldi honetan ematen den laguntza, guztira, artikuluko honetako 1., 2. eta 3. atalek hura finantzatzeko xedatzen duten guztizko zenbatekoaren arabera izango da gehienez.

5.– Ekitaldi honetako ordainketa-kredituei egotziko zaizkie laguntzak, edo, zenbait urtetako proiektuei dagokienez, zatikako ordainketei aurre egiteko konpromiso-kredituei; betiere, 2015. urtean aurrekontua ixteko aplikatu beharreko araudia betez.

5. artikulua.– Eskakizun orokorrak.

Honako eskakizun orokor hauek bete beharko dira:

- 1.– Diruz laguntzen diren inbertsioak Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Euskadiko Erregistroan izena emandako ekoiztegi batean egitea edo erregistro horretan sar daitekeen ekoiztegi berri bat sortzeko egitea.
- 2.– Diruz laguntzen diren inbertsioak egiten hasi ez izana eskaera aurkezten denean, obra zibila egiteko proiektuaren ordainsariei eta makinen ordainketari dagokienez izan ezik. Eskakizun hori betetzen dela ziurtatzeko, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak ikuskaritzalanak egingo ditu, *in situ*.
- 3.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- 4.– Baldin eta ekoiztegi berri bat sortzeko obra zibila egiteko egiten badira inbertsioak, inbertsioa egiteko beharrezkoak diren lur eta higiezinaren jabetza, alokairua edo gozamina izatea eta obra zibila egiteko beharrezkoak diren emakida eta baimenak eskatu izana.
- 5.– Baldin eta abian dagoen ekoiztegi batean obra zibila egiteko egiten badira inbertsioak, obra egiteko beharrezkoak diren baimenak eskatu izana eta ekoiztegia abian egoteko beharrezkoak diren baimenak izatea.
- 6.– Enpresak bideragarriak izatea ikuspegi ekonomikotik eta produktuak merkaturatzeko irtenbide normalak izatea.
- 7.– Enpresak krisialdian ez egotea estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).
- 8.– Inbertsioek Euskadin ingurumen-gaietan aplikatu beharreko berariazko araudia betetzea (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; eta 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra) —dagokionean, inbertsio bakoitzak ingurumenean duen eragina ebaluatuko da, aurrez—, baita higiene-araudia eta inbertsio bakoitzari aplikatu beharreko Erkidegoko arauak ere.
- 9.– Txosten tekniko ekonomiko bat eranstea inbertsio-proiektuei, haien bideragarritasunari buruzkoa.
- 10.– Produktu izoztu eta ultraizoztuak hotzean biltegitartzeko inbertsioei dagokienez, biltegien edukiera produktuak eraldatzeko instalazioen ekoizpen-ahalmenarekin bat etortzea eta, horrelako produktuak merkaturatzeko inbertsioei dagokienez, erosteko ahalmenarekin bat etortzea.
- 11.– Administrazio publikoei eta erakunde publiko edo pribatuei diruz lagundu daitekeen gastu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu zaien ala ez jakinaraztea eta, baiezkoan, eskuratu egin den ala ez jakinaraztea.
- 12.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntzen esparruan enpresa haiek itzultzeko edo zigortua izateko prozeduraren batean dagoen ala ez jakinaraztea.

13.– Enpresari diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor penal edo administratiborik jarri ez izana eta horrelakorik legez debekatu ez izana, sexu-bereizkeriagatik barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetan seigarrenarekin bat.

14.– Ondasun higigarriei dagokienez, inbertsioak laguntza eman eta zazpi urtez mantentzea, eta, ondasun higiezinei dagokienez, laguntza eman eta hamar urtez. Eskakizun hori betetzen ez badu, onuradunak diru-laguntza itzuli beharko du.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneko 09:00etan hasiko da, eta 15:00etan bukatuko. Eskabideak aurkezteko azken eguna ostirala bada, berriz, 12:00etan bukatuko da. Eskabidearekin batera, artikulua honetako 3. atalak aipatzen dituen dokumentuak aurkeztu beharko dira.

2.– <http://www.euskadi.eus> webgunean eskuratu ahaliko dira eskabideak, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari helaraziko zaizkio, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetara (Donostia kalea, 1 — 01010 Gasteiz) edo Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen Legearen 38.4. artikulua xedatzen duen edozein tokitara, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

<http://www.euskadi.eus> helbidetik jaitzita, ordenagailua erabiliz bete beharko dira, eta, sinatuta eta zigilatuta, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzara bidaliko dira.

3.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

a) Pertsona fisikoek, eskatzailearen nortasun-agiriaren kopia (automatikoki egiaztatu ezin bada, kopia aurkeztu beharko dute).

b) Pertsona juridikoek, enpresaren IFKren eta ahalordea emateko eskrituraren kopia, baita erakundea eratzeke eskriturarena eta estatutuena ere, dagokion erregistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita.

c) 100.000 eurotik beherako inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, txosten tekniko ekonomiko bat, proiektuaren bideragarritasunari buruzkoa, edukiaren aldetik agindu honen II. eranskinarekin bat datorrena.

d) 100.000 eta 500.000 euro arteko inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, txosten tekniko ekonomiko bat, proiektuaren bideragarritasunari buruzkoa, edukiaren aldetik agindu honen III. eranskinarekin bat datorrena.

e) 500.000 eurotik gorako inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, txosten tekniko ekonomiko bat, proiektuaren bideragarritasunari buruzkoa, edukiaren aldetik agindu honen IV. eranskinarekin bat datorrena.

f) Produktu izoztu eta ultraizoztuak hotzean biltegitratzeko inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, inbertsioen helburua eta xedea justifikatzeko eta biltegitratuko diren produktuak balio-kate bereko lehengai edo produktu eraldatuak direla, biltegien edukiera produktuak eraldatzeko instalazioen ekoizpen-ahalmenarekin bat datorrela eta, horrelako produktuak merkaturatzeko inbertsioei dagokienez, edukiera erosteko ahalmenarekin bat datorrela egiaztatzeko txosten bat.

g) Dagokionean, aurreko bi urteetako balantzearen eta emaitza-kontuaren kopia, enpresaren egoera ekonomikoa eta etorkizunerako aukerak justifikatzeko.

h) Obra zibila egiteko inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, obra egiteko proiektua eta horretarako baimena lortzeko eskabidea —dagokionean, oniritzia izan beharko du proiektuak—, eta ekoiztegi berri bat sortzeko inbertsioak egiteko laguntzak eskatzen dituztenek, inbertsioa egiteko beharrezkoak diren lur eta higiezinaren jabetza-, alokairu- edo gozamen-titulua.

i) Zinpeko deklarazio bat, honako hauek justifikatzeko:

– Aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla.

– 5. artikuluko 7., 8., 11., 12. eta 13. ataletako eskakizunak betetzen direla.

j) 26., 31., 37. edo 42. artikuluetako balioespen-irizpideak betetzen direla justifikatzeko txosten bat.

k) Eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentu.

4.– Automatikoki, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatu egingo ditu eskatzaileak dagokion foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak.

5.– Eskatzaileek beraiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahalko dituzte eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat.

6.– Eskabideak ez baditu betetzen eskakizun guztiak, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, akatsak zuzentzeko eta beharrezko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio baldin eta horrelakorik egiten ez badu atzera egin duela joko dela. Horretarako, aurrez, nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako produktuen eraldaketaren eta merkaturatzearen gaineko eskumena duen zuzendariak ebazpena eman beharko du, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen Legearen 42. artikuluekin bat.

7.– Betiere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak eskabidea egokiro ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezko deritzon bestelako dokumentu eta/edo argibideak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari.

7.– artikulua. Oro har diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

Honako inbertsio hauek izan ahalko dituzte laguntzak:

1.– Eraldaketa- eta merkaturatze-proiektuak.

a) Ondasun higiezinak eraikitze, lehenengo aldiz erabiltzen diren ondasun higiezinak erosteko eta, inbertsio batek bi laguntza izan ez ditzan, aurreko hamar urteetatik Estatuaren edo Erkidegoaren diru-laguntzarik kobratzen ari ez diren bigarren eskuko ondasun higiezinak erosteko eta birgaitzeko inbertsioek.

1.– Betiere, lurren balioa laguntzatik kanpo geldituko da. Ziurtagiria duen tasatzaile independente batek finkatuko du lurren balioa.

2.– Inbertsioa justifikatzeko beharrezkoak diren makina eta instalazioak eduki beharko dituzte higiezinak. Ildo horretatik, lehengaiak eta produktuaren balio-kate bereko produktu akabatuak biltegitratzeko higiezinak dagokienez, bertan egiten den jarduera justifikatzeko beharrezkoak diren eskakizunak bete beharko dituzte makinek.

b) Obra zibila egiteko nahitaezkoak diren ordainsariak ordaintzeko inbertsioek (gehienez ere, obra egiteko proiektuaren zenbatekoaren % 8).

c) Makinak erosteko, instalazioak egiteko eta ekoiztegiak hornitzeko inbertsioek (inbertsioen funtzionamendurako beharrezkoak diren bulego-altzariak, ekipamendu bulegotikoa eta programa informatikoak barne).

d) Hobekuntza- eta kalitate-prozesuetarako eta ingurumenaren gaineko eragina txikitzeko prozesuetarako inbertsioek (ekoizpen-prozesuek ikuspegi teknikitik eta osasunaren ikuspegitik bete behar dituzten eskakizunak betetzea eta, horren arabera, produktuak ziurtatzea eta egokitzea).

2.– Merkaturatze-proiektuak.

Merkatuak gardenagoak izateko eta ekoizpena errazago merkaturatzeko ekipamendu informatikoa erosteko inbertsioek (web inguruneko ekintzak, negozio elektronikoa, etab.).

8. artikulua.– Oro har diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Inbertsio hauek ezingo dute izan diru-laguntzarik:

1.– Enpresak salerosteko eta eskualdatzeko inbertsioek.

2.– Sozietate bat eratzeke eta hasteko gastuek.

3.– Inbertsioa egiten den lurra erosteko eta erosten diren lokal eta pabilioi eraikietako lurzorua balioa ordaintzeko inbertsioek.

4.– Eraldaketa-proiektuei dagokienez, higiezinetan bakarrik egiten diren inbertsioek, salbu eta, enpresak jardunean jarraitzeko, onuradunak makinak garraiatzen dituen beste ekoiztegi batetik. Salbuespen hori aplikatzeko, edonola ere, makinek bost urte izan ahaliko dituzte gehienez, eta justifikatu egin beharko da higiezinetan inbertsioak egiteko beharra, lekualdatzen diren makinak eta enpresaren jardura kontuan izanik, 7.1.a) artikuluko 2. atalak aipatzen duen egoeran izan ezik.

5.– Salgaietan eta bigarren eskuko makinetan eta ekipamenduan egiten diren inbertsioek, 25.3. artikuluari dagokionez izan ezik.

6.– Makinak ez diren inbertsioen finantza-errentamenduak.

7.– Txikizkako merkataritzaren alorreko inbertsioek, enpresak bere instalazioetan bere produktuak dastatzeko jartzen dituen dendei dagokienez izan ezik.

8.– Produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko prozesuarekin zuzeneko loturarik ez duten obrak egiteko inbertsioek (etxebizitzak, sukaldeak, komunak, jangelak, ostatuak.).

9.– Industriaren jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten urbanizazio-lanak egiteko inbertsioek eta, tartean, industriaren lursailetik kanpoko zerbitzu-azpiegituretarako harguneak sortzeko inbertsioek (ura, argia, saneamendua.).

10.– Balio erantsiaren gaineko zergak eta beste zerga batzuek.

11.– Normalean bost urtetik beherako zikloetan amortiza daitekeen materialak, ez kontabilitateak gastutat hartzen dituen inbertsioek, azterlan eta proiektuek izan ezik.

12.– Garraio-elementuek, salbu eta eraldaketa-prozesuekin halabeharrezko lotura dutenean eta ekoiztegiarenak direnean.

13.– Aurrez prestatutako jakien sektoreko inbertsioek, baldin eta janaria ez bada merkaturatzen banaketaren bidez; alegia, baldin eta helburua taldeentzako janaria prestatzea eta banatzea bada edo janaria zuzenean eskaintzen bazaie hartzaile eta kontsumitzaileei.

14.– Guztira 3.000 eurotik beherakoak diren inbertsioek.

15.– Ebakitzeko eta zulatzeke esku-erremintak, motozerrak eta abar erosteko inbertsioek.

16.– Ekipamendua eta makinak besterik gabe aldatzeko eta ordezkatzeko inbertsioek, salbu eta teknologia ezberdina darabilten edo errendimendu hobea duten ekipamendua eta makinak erosten badira.

9. artikulua.– Inbertsioen muga eta baldintza orokorrak.

Inbertsioak balioesteko ondoko modulueta egokituko dira diruz laguntzen diren kostuak, hau guztia kontuan izanik:

- 1.– Proiektuek obra zibila egitea aurreikusten badute, diruz laguntzen den gehieneko inbertsioa kalkulatzeko, azalera eraikia bider metro koadroko 450 euroko modulua egingo da.
- 2.– Produktuak goraka biltegitratzeko eraikinei dagokienez, moduluaren zenbatekoa kalkulatzeko, eraikinaren guztizko altuera zati zazpi egingo da, eta, gero, zatidura bider aurreko paragrafoan aipatutako metro koadroko modulua.
- 3.– Proiektuek bulego-altzariak jartzea aurreikusten badute, diruz laguntzen den gehieneko inbertsioa kalkulatzeko, lanpostu bakoitzeko bulegoaren azalera (10m^2) bider metro koadroko 100 euroko modulua egingo da.
- 4.– Funtzen inguruko itxiturei dagokienez, diruz laguntzen den gehieneko inbertsioa metro linealeko 35 eurokoa izango da, eta barnean sartuko dira ateaz beste elementu berezi guztiak. Era berean, diruz laguntzen diren metro linealen gehieneko kopurua kalkulatzeko, inbertsio-proiektuaren araberrako ekoiztegiaren barnean eraikitzen diren edo eraiki nahi diren metro koadroak batuko dira.
- 5.– Berdinketa- eta urbanizazio-lanei dagokienez, diruz laguntzen den gehieneko inbertsioa metro koadroko 30 eurokoa izango da. Era berean, diruz laguntzen diren metro koadroen gehieneko kopurua kalkulatzeko, azalera eraiki berria bider bi egingo da.
- 6.– Makinetan egiten diren inbertsioak finantza-errentamenduaren bidez finantzatu ahalko dira, betiere, finantza-errentamenduko kontratuak xedatzen badu nahitaezkoa dela errentamendua amaitzen denean ondasuna erostea. Alde horretatik, ondasunaren deskripzioa, haren zenbatekoa eta errentamendu-epea adieraziko ditu kontratuak, eta errentamendua amaitzen denean ondasuna erostea nahitaezkoa izateko klausula bat finkatuko du, baita errentamenduak diru-laguntzei buruzko araudiak finkatzen dituen betebeharrak bete behar izatea ere. Finantza-errentamenduak zazpi urte iraungo du gehienez ere.

10. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza izango da agindu honek arautzen dituen laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Proiektuak balioesteko, balioespen-batzorde bat eratuko da. Hiru kidek osatuko dute, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko kideak izango dira hirurak. Horietako bat, zehazki, Enpresa Programaren arduraduna izango da. Beste biak, berriz, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikarien artetik aukeratuko dira, eta zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Ebazpen horrek, era berean, adieraziko du nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua.

Gainera, bere eginkizunak betetzeko, Batzordeak bere bileretan parte hartzeko eta aholku emateko eskatu ahalko die arloko adituei, beharrezko deritzonean, mugarik gabe.

3.– Balioespen Batzordeak proiektuen bideragarritasuna aztertu eta espedienteak balioetsi aurretik, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikari batek eskabide bakoitza aztertuko du: proiektu bakoitzaren azterketa tekniko eta ekonomikoa egingo du, eta, haren arabera, proiektuak agindu honetako eskakizunak betetzen dituen aztertzeko txosten bat egingo du, batzordeari aurkeztuko diona.

4.– Eginkizun hauek izango ditu Balioespen Batzordeak:

a) Aurkezten diren eskabide guztiak aztertzea eta aplikatu beharreko araudia betetzen dutenak eta araudia betetzen ez dutenak bereiztea. Era berean, araudia betetzen ez duen eskabide bakoitza baztertzeko arrazoiak zerrendatuko ditu.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea. Ebaluazioaren barruan, proiektuak balioetsiko ditu, eta balioztatuko du zenbateraino betetzen dituen bakoitzak agindu honek finkatzen dituen irizpide objektiboak, laguntza motaren arabera.

c) Kapitulua bakoitzak laguntza mota bakoitza balioesteko eta kuantifikatzeko finkatzen dituen irizpide objektiboetan oinarrituz, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza eman proposatzea.

6.– Balioespen Batzordeak ebazpen-proposamen bakarra aurkeztuko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, eta proposamenak agindu honetako 12. artikulua aipatzen duen edukia hartuko du barnean gutxienez.

7.– Balioespen Batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezarri ahalko ditu. Arau horiek aurreikusten ez dituzten gaitan, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22.–27. artikulua aplikatuko dira.

11. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Lehiaketa bidez esleitzeko dira agindu honen II., III., IV. eta V. kapituluek arautzen duten laguntza-ildo bakoitzeko laguntzak.

2.– Agindu honen II., III., IV. eta V. kapituluek arautzen duten laguntza-ildo bakoitzaren barruan, proiektu bakoitzari ematen zaion laguntzaren hasierako zenbatekoa kalkulatzeko, aurkezten diren proiektuak konparatuko dira, eta aginduak finkatzen dituen irizpide objektiboak eta balioespena aplikatuko zaizkie. Ondoren, laguntza-ildo bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta. Ordena horretan esleitzeko dira laguntzak, agindu honen 27., 32., 38. eta 43. artikuluek finkatzen dituzten ehunekoak aplikatuta, funts guztiak agortu arte.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Aurkeztutako eskabide eta dokumentuak aztertutakoan, agindu honen 10. artikuluko proposamena ikusita, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak deialdia ebatziko du, laguntzak emateko eta ukatzeko ebazpen bakar baten bidez.

2.– Ebazpenak informazio hau hartuko du barnean gutxienez:

A.– Onartutako eskabideak:

1.– Onuradunen izena eta IFK edo nortasun-agiriaren zenbakia.

- 2.– Diruz laguntzen den inbertsioaren zenbatekoa.
- 3.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den zenbatekoa.
- 4.– Agindu honen II. eta III. kapituluak arautzen dituzten laguntzei dagokienez, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura finantzatzen den zenbatekoa.
- 5.– Agindu honen IV. kapituluak arautzen dituen laguntzei dagokienez, Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren kontura finantzatzen den zenbatekoa.
- 6.– Agindu honen II. eta III. kapituluak arautzen dituzten laguntzei dagokienez, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura finantzatzen den zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzen duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren arabera emango eta ordainduko dela.
- 7.– Jarduerak egiteko epea.

B.– Ukatutako eskabideak.

- 1.– Eskatzaileen izena eta IFK edo nortasun-agiriaren zenbakia.
- 2.– Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntzen esparruan haiek itzultzeko edo zigortua izateko prozedura oro amaitu izana.

4.– Agindu hau indarrean sartu eta sei hilabetean emango eta jakinaraziko da ebazpena gehienez ere. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ez badago, eskabideak ukatu direla jo beharko dute interesdunek, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen Legearen 44. artikuluekin bat.

5.– Interesdunek gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko dute laguntzak emateko eta ukatzeko ebazpenaren kontra, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean. Berariazko ebazpenik badago, hilabete izango dute horretarako, ebazpenaren berri izan eta biharamunetik aurrera, eta berariazko ebazpenik ez badago, berriz, hiru hilabete, administrazioaren isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen Legearen 114. eta 115. artikuluekin bat.

6.– Laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinaraziko da, eta, gainera, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpen baten bidez, agindu honekin bat ematen diren laguntzen onuradunen zerrenda argitaratuko da EHAAn, zenbatekoak ere adierazita, publizitate-helburuetarako.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- 1.– Diruz laguntzen den inbertsio-proiektua laguntza emateko ebazpenak edo, dagokionean, laguntza luzatzeko ebazpenak ematen duen epean gauzatzea; betiere, agindu honen kapitulu bakoitzak ezartzen duen gehieneko mugaren barruan.
- 2.– Zertarako ematen den laguntza, horretarako erabiltzea.
- 3.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

4.– Ondasun higigarriei dagokienez (makinak, lanabesak eta ekipamendu informatikoa), diruz laguntzen diren inbertsioak diru-laguntza osorik ordaindu eta bost urte mantentzea gutxienez eta, ondasun higiezinei dagokienez, ondasunak erregistroan sartu eta hamar urte mantentzea gutxienez.

Epe horretan, ezingo dira besterendu ez amortizatu ez diruz laguntzen den helburuaz beste helburu bat lortzeko erabili ere.

5.– Nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko gaien eskumena duen zuzendaritzari jakinaraztea inbertsioa partzialki edo osorik egin dela eta haren esku uztea horixe egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.

6.– Nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko gaien eskumena duen sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari laguntzak nola erabiltzen diren eta haien helburuak lortzen diren ikuskatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.

7.– Agindu honen 5.11. artikuluari kalte egin gabe, baldin eta beste administrazio batek edo erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen duen beste diru-laguntza edo laguntzarik eskuratzen bada, horren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, beste laguntza edo diru-laguntza eskuratu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturaletan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

8.– Baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintza objektibo edo subjektiboak aldatzen badira, horren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, baldintzak aldatu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturaletan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

9.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikuluko betebeharrak betetzea.

10.– Agindu honen II., III. eta IV. kapituluarekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, diruz laguntzen diren inbertsio guztietan eta haiei buruz argitaratzen diren informazio eta iragarki guztietan agerian jartzea Erkidegoko funtsek eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituztela, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuarekin bat eta honako hauekin bat:

– Agindu honen II. eta III. kapituluarekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Batzordearen uztailaren 17ko 808/2014 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren III. eranskinaren 2. atalarekin bat.

– Agindu honen IV. kapituluarekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, maiatzaren 15eko 508/2014 (EB) Erregelamenduarekin bat.

11.– Kontabilitate-sistema berezitu bat edo kontabilitate-kode egoki bat izatea deialdiaren esparruan finantzatzen den inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako, araudiak xedatzen dituen kontrol-lanak egin ahal izateko.

14. artikulua.– Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea.

1.– Urtebetean edo zenbait urtetan gauzatu ahalko dira proiektuak.

2.– Urtebete irauten duten proiektuak gauzatzeko epea 2015. urteko abenduaren 31 artekoa izango da, baina luzatu egin ahalko da, 17.3. artikuluekin bat. Nolanahi ere, epea luzatzen bada ere, 2016ko abenduaren 31ra artekoa izango da gehieneko epea.

3.– Zenbait urte irauten duten proiektuak gauzatzeko epea 2016. urteko abenduaren 31 artekoa izango da, baina luzatu egin ahalko da, 17.3. artikuluekin bat, 2017ko abenduaren 31ra arte.

15. artikulua.– Inbertsioaren justifikazioa.

1.– Laguntzen den inbertsio-proiektuaren gauzatzea justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrean:

a) Jarduerak justifikatzeko txosten bat, proiektuaren gauzatzeari eta gauzatze-mailari buruzko informazioa dakarrena.

b) Ondasun higiezin erosteta laguntzen denean diruz, salerosketaren egiaztigiri publikoaren kopia bat edo, higiezina eraiki egiten denean, obra berriaren deklarazioaren kopia bat.

c) Obra zibila egitea aurreikusten bada inbertsio-proiektuaren esparruan, obra egiteko lizentzia edo, ez bada nahitaezkoa lizentzia edo baimena eskatzea, horren egiaztigiria.

d) Jatorrizko fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztigiriak.

e) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztigiriak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, aurkeztu egin badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztigiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

2.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeari dagokionez, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du, automatikoki.

3.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dokumentu gehiago eskatu ahalko ditu egoki baderitzo; betiere, eskaera arrazoituta. Era berean, beste txosten bat eskatu ahalko du, fakturen eta egindako ordainketen xehetasunen taula bat (faktura eta ordainketen data eta erreferentziak, hornitzaileak, azalpena, zenbatekoa eta aplikatutako zergak). Besteak beste, egoera hauetan eskatu ahalko du txosten hori:

a) Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak 1.000.000 eurotik gorakoak direnean.

b) 50 faktura baino gehiago daudenean.

c) Euskaraz eta gaztelaniaz beste hizkuntza batzuetan egindako dokumentu eta fakturak daudenean.

16. artikulua.– Ordainketa.

1.– Aurreko artikulua aitpatzen dituen dokumentuen bidez inbertsioa justifikatu eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikariek inbertsioen gauzatzea kontrolatutakoan ordainduko dira diru-laguntzak. Alde horretatik, onuradunek inbertsioa partzialki edo osorik egin dutela jakinarazi eta hiru hilabete egingo dira gehienez ere kontrol-lanak.

2.– Ez da laguntzen aurrerakin ordainduko.

3.– Onuradunei ordainduko zaie laguntza, zuzenean. Onuradunek egiaztigiri baten bidez jakinarazten badute, ordea, 9.6. artikulua aitpatzen duen egoeran, inbertsioa finantzatzen lagundu dieten kreditu-erakundearen kontu batean endosatu ahalko dira ordainketak.

4.– Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren kontura ematen diren laguntzak Erakunde Ordaintzailearen bidez ordainduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzen duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretuarekin bat, Erakunde Ordaintzaileko zuzendariak dagozkion ebazpenak emandakoan.

Urte bakoitzean, bi ordainketa partzial egin ahalko dira; betiere, interesdunak eskatzen badu. Zenbait urtetarako proiektuei dagokienez, urte bakoitzeko inbertsioak ekitaldi bakoitzean ordainduko dira, dagokion ekitaldiko aurrekontuen kontura.

5.– Ordainketa eskatzeko eskabidearekin batera, 15.1. artikulua aipatzen dituen dokumentuak aurkeztuko dira.

6.– Inbertsioak gehieneko epeen barruan egiten ez badira, luzapenak ere kontuan izanik, edo inbertsioa egin izanaren egiaztagiria epe barruan aurkeztu ez badira, ondorio hauek sortuko dira:

– Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren kontura finantzatzen den laguntza zatiari dagokionez, Funtza zati hori ordaintzeko konpromisotik aske gelditzea, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EE) Erregelamenduaren 38. artikuluekin bat.

– Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren kontura finantzatzen den laguntza zatiari dagokionez, Funtza zati hori ordaintzeko konpromisotik aske gelditzea, Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EE) Erregelamenduekin bat.

– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatzen den laguntzari dagokionez, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea eta, kasuan-kasuan, agindu honen 19. artikulua diru-laguntzak itzularazteko xedatzen duen prozedura hastea.

17. artikulua.– Diru-laguntzak emateko baldintzen aldaketa eta inbertsioa egiteko epeen luzapena.

1.– Baldin eta beste erakunde publiko edo pribatu batek beste laguntza edo diru-laguntza bat ematen badu, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, eta diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da; betiere, agindu honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak egoera berrira egokitzeko, eta, dagokionean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak arautzen duen itzulketa-prozedura hasiko du.

Baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada baina proiektua ez bada funtsean aldatzen eta, betiere, agindu honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, baina diru-laguntza emateko ebazpena ez da aldatuko.

Aitzitik, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada eta horren guztiaren ondorioz proiektua funtsean aldatzen bada baina laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, eta diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du.

2.– Baldin eta inbertsioaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta diru-laguntza emateko erreferentziatutako aurrekontua baino, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio diru-laguntzaren ehunekoa.

3.– Onuradunak aldeztu aurretik eta idatziz eskatzen eta arrazoitzen badu —laguntza emateko ebazpenaren arabera inbertsioa edo gastua bukatu behar den eguna baino 30 egun lehenago aurkeztu beharko luke eskaera—, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak inbertsioa egiteko epea luzatu ahalko du, ebazpen baten bidez, hasieran onartutako diru-laguntzari eutsita. Ebazpenean, luzapenaren gehieneko iraupena finkatuko du. Alde horretatik, proiektuak gauzatzeko gehieneko epea inola ere ez da izango luzeagoa agindu honen 14. artikulua xedatzen duena baino.

18. artikulua.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Eskatzaileek atzera egin ahalko dute; betiere, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskaera bat helarazi beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskaera, eta amaitutzat emango du haiei dagokien prozedura.

2.— Onuradunek laguntzei uko egin ahal izango diete, are laguntza onartu ondoren —agindu honen 13.3. artikuluekin bat, emandako laguntza onartzeko betebeharra dute onuradunek—; betiere, inbertsioa amaitu aurretik, Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Horretarako, emandako laguntzei uko egiteko eskaera bat helarazi beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskaera, eta amaitutzat emango du haiei dagokien prozedura.

Ukoa onartutakoan, automatikoki, deialdiaren ebazpenaren bidez onartutako eskubidea galduko du onuradunak, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

19. artikulua.— Ez-betetzeak.

1.— Baldin eta onuradunek ez badute betetzen agindu honetako betebeharren bat edo diru-laguntza emateko ebazpenak finkatzen duen baldintzaren bat, proiektua ez badute osorik gauzaten eta horren ondorioz erabat hutsaltzen badute laguntzaren helburua edo diru-laguntzak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badaude Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluekin bat, laguntzak ematen dituen organo eskudunak baldintzak ez betetzeagatiko espedienteak izapidetu eta interesduna entzun, eta, ebazpen baten bidez, diru-laguntza jasatzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, partzialki edo osorik, eta, dagokionean, kobratu dituen laguntzak eta dagozkion legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzularaziko dizkio, osorik edo partzialki (proiektuaren gauzatze-mailaren arabera), Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzudan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluekin bat. Gainera, dagozkion gainerako neurriak hartuko dira. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako diru-laguntzaren itzulketa «pro rata temporis» egingo da.

Legezko ondorio guztietarako, diru-sarrera publikotzat hartuko dira zenbateko horiek.

2.— Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zigor-prozedura has dezan.

20. artikulua.— Bateragarritasunak.

1.— Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako ematen duen beste edozeinekin; betiere, diru-laguntza guztien batura ez bada handiagoa agindu honen kapitulu bakoitzak finkatzen dituen gehieneko ehunekoak baino. Handiagoa bada, berriz, gaitzakeria dagokion zenbatekoa kenduko zaio agindu honekin bat ematen den laguntzari.

2.– Aurreko paragrafoak xedatzen duena gorabehera, baldin eta laguntzen mugak desberdinak badira, onuradunarentzat onuragarriena den muga hartuko da kontuan gaindikina kalkulatzeko.

21. artikulua. Datuen babesa.

Datuei Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta aplikatu beharreko gainerako araudiak bermatzen duten babes-maila emateko konpromisoa izango du Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak.

II. KAPITULUA

ARRANTZAKO PRODUKTUAK IZAN EZIK, TRATATUAREN 1. ERANSKINEKO NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK (EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ABENDUAREN 17KO 1305/2013 (EB) ERREGELAMENDUAREN 17.1.B) ARTIKULUAK AIPATZEN DITUENAK) ERALDATZEKO, MERKATURATZEKO ETA GARATZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK

22. artikulua.— Xedea eta helburua.

1.– Laguntzen xedea, arrantzako produktuak alde batera utzita, Tratatuaren 1. eranskineko nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko inbertsioak egitea da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan daude —1305/2013 (EB) Erregelamenduaren garatzen eta aplikatzen du 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programak—.

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

a) Produktuak sakonago barneratzea elikadura-katean, gure ustiatzearen eraldaketa- eta merkaturatze-lana sustatzea eta nekazaritzako elikagaien gure kooperatiba eta enpresen pisu ekonomikoa eta enplegua eta horiek Euskadiko ekoizpen-sektorean betetzen duten traxzio-eginkizuna sustatzea.

b) EAEn nekazaritzako elikagaien sektorean diharduten enpresetan inbertsioek ingurumenean eragin txikiagoa izateko, eraginkortasun energetikoa handitzeko, ura aurrezteko eta arazteko eta hondakin eta azpiproduktuak aprobetxatzeko laguntza ematea.

3.– Proiektuak aukeratzeko baldintzak.

a) Ekoizpen-prozesuaren emaitzak ez du zertan Tratatuaren I. eranskinak aipatzen duen produktu bat izan.

b) Gehigarri baimenduak eta beste elikadura-produktu batzuk erabili ahalko dira ekoizpen-prozesuan; betiere, eraldatutako bolumenaren % 20 baino gehiago egiten ez badute.

c) Proiektuen bideragarritasunari buruzko txosten tekniko bat aurkeztu beharko da, agindu honen II., III. eta IV. kapituluek zehazten dituzten edukiak biltzen dituen, proiektuen bolumenaren arabera.

23. artikulua.— Onuradunak.

Pertsona fisiko eta juridikoak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun: batetik, nekazariak eta nekazari elkarteak eta, bestetik, ekoiztegia EAEn duten nekazaritza-kooperatibak eta nekazaritzako elikagaien enpresak; betiere, Tratatuaren I. eranskinak aipatzen dituen nekazaritzako produktuak eraldatzen, garatzen edo merkaturatzen badituzte eta proiektuak aukeratzeko baldintzak betetzen badituzte.

24. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektu motak.

Kapitulu honen esparruan, inbertsio-proiektu hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

1.– Nekazaritzako elikagaien artisau-eraldaketa; alegia, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko uztailaren 3ko 126/2012 Dekretuak finkatzen dituen baldintzetan beren ekoizpena elikadura-sektorearen barruan eraldatzen eta merkaturatzen duten nekazaritza-ustategietako inbertsio-proiektuak.

2.– Eraldaketa nekazaritzako elikagaien enpresetan; alegia, produktua biltegitratzen denetik produktu akabatua sortu arte produktua prestatzeko berezko prozesua osatzen duten egitekoak eta, tartean, ekoizpen-prozesuak kontrolatzeko sistemak. Bereziki, honako hauek hartuko dira diruz laguntzeko moduko proiektutzat:

a) Enpresak elikadura-katean sakonago barneratzeko eta bitartekarien kopurua txikitzeko, hornitzaile eta bezeroen arteko harremanak sendotzeko eta lehen sektoreko ekoizpenetik tira egiteko proiektuak.

b) Eskaintzaren kalitate eta erregularutasun-baldintzak hobetzeko neurrien bidez enpresen tamaina eta/edo nazioartekotasuna handitzeko proiektuak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan bertan edo kanpoan ordain handiagoa duten merkatuetan jarduteko proiektuak.

3.– Kudeaketaren eta kalitatearen hobekuntza; alegia, produktuen kalitatea kontrolatzeko prozesuaren barruko egiteko oro: lehengaiak iristen direnean laginak hartzea, produktuak prestatzeko prozesua kontrolatzea, produktuen trazabilitatea ziurtatzea, kalitate-sistemak erabiltzea, elikagaien kalitatea bermatzeko arauak ezartzea.

4.– Egitura operatiboaren hobekuntza; alegia, administrazio-lana kudeatzeko, enpresa antolatzeko eta kontrolatzeko eta informazio- eta komunikazio-sareak garatzeko lan oro.

5.– Merkaturatzea nekazaritzako elikagaien enpresetan; alegia, produktu eraldatuak ahalik eta modu eraginkorrean merkaturatzeko elementu komertzial oro: biltegiak, bulego komertzialak, merkaturatze-sareak garatzeko azpiegitura. Bereziki, honako hauek hartuko dira diruz laguntzeko moduko proiektutzat:

a) Hardware-sistemak, softwarea, web plataformak eta merkataritza elektronikorako plataformak ezartzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen hasteko eta merkataritza elektronikoa ezartzeko proiektuak.

b) Produktuak prestatzeko instalazioen ondoan haiek zuzenean saltzeko guneak sortzeko proiektuak (tartean, erakusketa-aretoak eta dastalekuak).

c) Produktuak erakusteko eta/edo zuzenean saltzeko beharrezkoa den ekipamendua.

6.– Produktu eta prozedura berrien garapena; alegia, produktuak merkaturako joera berrietara egokitzeko eta produktu berriak prestatzeko inbertsioak (produktu eta makinen prototipoen diseinua, garapena eta saiakuntza).

7.– Merkataritza-arloko azterlanak; alegia, merkatu-ikerketak, enpresen eta merkataritza-gaien kudeaketa eta enpresen arteko eta merkataritza-sektoreko lankidetzak hobetzeko azterketak, merkatua ikertzeko azterketak eta marketin-planak, 7. artikulua ezartzen dituen mugen barruan. Enpresarentzat estrategikoa den ikuspegi global batetik egin beharko dira, hiru urterako.

8.— Ingurumena hobetzearekin lotutako inbertsioak; alegia, ekoizpen-jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzeko inbertsioak (dekantagailuak, araztegiak, ur-tratamenduak, gas-iragazketa.). Lankidetzak-akordio bidez, enpresek elkarrekin egin ahalko dituzte inbertsioak, baina bakarrik izango da inbertsioaren arduradun eta laguntzaren onuradun.

25. artikulua.— Diruz lagunduko ez diren inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, inbertsio-proiektu hauek ez dira hartuko diruz laguntzeko modukotzat:

1.— Indarrean dagoen bitartean edo proiektu berriak babesteko funtsak agortu bitartean 2014-2018 aldian Espainiako Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreari Laguntzeko Programak mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean babesten dituen inbertsioak.

2.— EAEn erregistratutako fruitu- eta barazki-ekoizleen elkarrekin batek sustatzen dituen eta dagoen programa eragilearen esparruan diruz laguntza eskatu duten inbertsioak.

3.— Basogintzako eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

4.— Bigarren eskuko ekipamendua erosteko inbertsioak. Nekazaritzako elikagaien artisau-erlaketarako proiektuen barruan, ordea, diruz lagundu ahalko dira baldin eta titularrak lehen aldiz hasten badira sektorean eta ekipamendua titularrek eskuratzen duten ustategikoa bada eta ez badu diruz laguntza publikorik izan aurreko hamar urteetan.

26. artikulua.— Proiektuen balioespena.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak balioesteko eta bakoitzari puntu kopuru bat emateko —proiektu bakoitzaren puntu kopuruaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 27. artikuluekin bat—, balioespen-irizpide hauetako bat edo hainbat hartuko da kontuan:

1.— Martxoaren 27ko 44/2012 Dekretuekin bat, proiektuek sektorean duten eragina eta haien berrikuntza- eta enplegu-ezaugarriak kontuan izanik Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat dituen proiektuei 40 puntu emango zaizkie.

2.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 35 puntu emango zaizkie:

— Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak onartutako plan sektorial estrategikoen arabera sektore edo azpisektore batekoak izatea.

— Nekazaritzako ekoizpen-sektorearen gehiengoak parte hartzea.

— Bost urtez gutxienez enpresako langileen urteko batez besteko kopurua % 30 handitzea (aurreko bi urteetako batez bestekoa).

3.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 30 puntu emango zaizkie:

— Erabiltzen diren lehengaien % 70 gutxienez EAEn ekoiztutakoak izatea.

— Proiektuaren bidez ekoizten denaren % 70 baino gehiago EAeko kalitate-bereizgarriren baten peko produktuak izatea, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruko M03. neurriarekin bat —nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuaren kalitate-araubideari buruzkoa da M03. neurria—.

— Eraldaketa- eta merkaturatze-katean integrazio-maila bertikal handia izatea eta ekoizpenaren % 70 gutxienez azken produktu gisa merkaturatzea.

- Bost urtez gutxienez enpresako langileen urteko batez besteko kopurua % 15etik % 30era bitartean handitzea (aurreko bi urteetako batez bestekoa).

- Europako berrikuntza-elkarte bat osatzen duten talde eragileen ekimenez sustatutako lankidetza-proiektuak izatea.

4.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 20 puntu emango zaizkie:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen-sektorearekin lehengaiak hornitzeko kontratuzko harremanak sustatzea.

- Kooperatibek beren bazkideen lehengaietatik eratorritako produktu eraldatuak zuzenean merkaturatzea.

- Bost urtez gutxienez enpresako langileen urteko batez besteko kopurua % 10etik % 15era bitartean handitzea (aurreko bi urteetako batez bestekoa).

- Ekoizpen-jarduerak ingurumenen duen eragina txikitzeko inbertsioak egitea.

- Eraldaketa- eta merkaturatze-prozesua hobetzeko enpresen arteko lankidetza-proiektuak izatea.

5.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

- Mikroenpresen inbertsio-proiektuak izatea, Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

- Diruz lagundu daitekeen guztizko inbertsioaren % 50 baino gehiago makina eta instalazioek egitea.

- Emakumeek sustatutako enpresa-ekimenak babestea.

- Gazte ekintzaileek (41 urtetik beherakoek) nekazaritzako elikagaien enpresak sortzea.

- Erabiltzen diren lehengaien % 30etik % 70era bitartean EAEn ekoiztikoak izatea.

6.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 10 puntu emango zaizkie:

- Laguntzaren helburu den jardueran diharduten langileei prestakuntza emateko planak aurreikustea.

- Merkaturatzea areagotzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak ezartzea; bereziki, esportazio-merkatuan.

- Gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresenak izatea.

- Bere langile propioak dituen merkataritza-sail bat duten enpresenak izatea.

- Lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko, negozio elektronikoaren berezko tresnak ezartzea.

27. artikulua.– Laguntzen kuantifikazioa.

1.– Gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40koa izango da laguntzaren zenbatekoa.

2.– Proiektu bakoitzak aurreko artikuluekin bat lortzen duen puntu kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

- a) 14 puntu edo gutxiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 0 lagunduko da diruz.
- b) 15 puntutik 29ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 5 lagunduko da diruz.
- c) 30 puntutik 39ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 10 lagunduko da diruz.
- d) 40 puntutik 59ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 15 lagunduko da diruz.
- e) 60 puntutik 74ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 20 lagunduko da diruz.
- f) 75 puntutik 89ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 25 lagunduko da diruz.
- g) 90 puntutik 109ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 30 lagunduko da diruz.
- h) 109 puntu baino gehiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 40 lagunduko da diruz.

3.– Proiektu batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortzen badute, ordena honetan emango zaie lehentasuna:

- a) Enpresa edo ekoiztegi berriak sortzeko proiektuak eta lanpostuak sortzen dituztenak.
- b) Oinarrizko ekoizleek kooperatiba-enpresetan biltzeko eta bat egiteko proiektuak, bazkideen kopurua eta ekoizpen propioaren bolumena handitzea eta antolamenduaren eraginkortasuna areagotzea dakartenak.
- c) Produktuak ekoiztegi bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait nekazaritza-ustategik edo nekazaritzako elikagaien zenbait enpresak elkarrekin sustatutako proiektuak.
- d) Produktuak zuzenean merkaturatzen dituzten ustategien proiektuak.
- e) Enpresa txiki eta ertainen inbertsio-proiektuak, Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

4.– Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat enpresa txiki eta ertaintzat hartzen ez diren enpresen inbertsio-proiektuei dagokienez, gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 20koa izango da laguntzaren zenbatekoa, edo milioi eta erdi eurokoa.

5.– Betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren II. eranskinak ezartzen dituen gehieneko ehunekoekin bat etorriko da laguntzen zenbatekoa.

6.– Ekoizpen-prozesuaren emaitza ez bada nekazaritzako produktu bat edo Tratatuaren I. eranskinak aipatzen duen produktu bat, Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduaren 44. artikuluekin bat emango da laguntza, eta, horrenbestez, ez da izango gehieneko ehunekoen arabera: enpresa ertainei dagokienez, gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 10ekoa izango da laguntzaren zenbatekoa, eta, enpresa txikiei eta mikroenpresei dagokienez, gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 20koa.

III. KAPITULUA

BASOGINTZAREN GAITASUNA HOBETZEKO ETA EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ABENDUAREN 17KO 1305/2013 (EB) ERREGELAMENDUAREN 26. ARTIKULUAK AIPATZEN DITUEN BASOGINTZAKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO, MOBILIZATZEKO ETA MERKATURATZEKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK

28. artikulua.— Xedea eta helburua

1.— Laguntzen xedea basogintzako produktuak eraldatzeko, mobilizatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea da (zehazki, zura eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan daude —1305/2013 (EB) Erregelamenduaren garatzen eta aplikatzen du 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programak—.

2.— Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko basogintza-azpisektorearen lehiakortasunaren hobekuntza areagotzea, zura lehengai edo energia-iturri gisa erabiltzen duten inbertsioak sustatuta.

– Basogintzako produktuak merkaturako eskakizun berrietara egokitu daitezen bultzatzea; produktuen berringeniaritza, zuraren kalitatea eta basogintzako produktuen ziurtagiria sustatzea; basogintzako produktuak eta haien hondakinak hobeto ustiatzeko lehen mailako azpiegitura komertzialen sorrera finantzatzea; eta zerraketa-industrien lehiakortasuna hobetzea.

29. artikulua.— Onuradunak.

1.— Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun; betiere, kapituluak berak diruz laguntzeko modukotzat hartzen duen jardueraren batean badihardute eta agindu honek xedatzen duena betetzen badute.

2.— Onuradun izateko, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat, mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute pertsonak.

30. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

Kapitulu honen esparruan, zura eraldatzeko eta merkaturatzeko lanak hartuko dira diruz laguntzeko moduko inbertsioetat. Bereziki, honako hauek:

1.— Zura eraldatzeko makinetan egiten diren inbertsioak (azala kentzeko makinak, lehortegiak, zerraketa-lineak, instalazioen barnean zur prozesatua edo haren hondakinak biribilkitan garraiatzeko makinak, zura tratatzeko makinak, zuraren azpiproduktuak eta zerraketa-lanetan sortzen diren hondakinak ustiatzeko eta eraldatzeko makinak.). Esku-tresnak (motozerrak, etab.), aldiz, ez dira hartuko diruz laguntzeko moduko inbertsioetat.

2.— Zura merkaturatzeko egituretan egiten diren inbertsioak (basoak kudeatzeko prozesu jasangarrien esparruan basogintzako produktu eraldatuak zaintzeko katea ziurtatzeko prozesuak, zura tratatzeko makinak, sailkagailuak, pilagailuak, zerraketaren produktuak merkaturatzeko antzeko makinak.).

3.— Zura lehengai edo energia-iturri gisa erabiltze aldera, azken produktu landuak sortzeko eraldaketa industrialen aurretik zura lehenengoz tratatzeko inbertsioak; betiere, eskala txikikoak badira.

4.– Zura zerratzeko ekipamendu eta instalazio mugikorretan egiten diren inbertsioak (zura ebakitzeko guneetara eramateko modukoak). Zura eta biomasa gordetzeko biltegi eta parkeak, aldiz, ez dira hartuko diruz laguntzeko moduko inbertsioetat.

5.– Zur sailkatua erakusteko eta saltzeko merkaturatze-instalazioetan egiten diren inbertsioak.

31. artikulua.– Proiektuen balioespena.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak balioesteko eta bakoitzari puntu kopuru bat emateko — proiektu bakoitzaren puntu kopuruaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 32. artikuluekin bat—, balioespen-irizpide hauetako bat edo hainbat hartuko da kontuan:

1.– Proiektuak sustatzen dituzten pertsona motak.

A.– Basogin-kooperatibek edo, produktuak ekoiztegi bakarrean eraldatzeko eta merkaturatzeko, zenbait basogintza-ustategik elkarrekin sustatzen dituzten proiektuei 30 puntu emango zaizkie.

B.– Emakumeek edo gazte ekintzaileek (41 urtetik beherakoek) basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko enpresak sortzeko sustatzen dituzten ekimenei 15 puntu emango zaizkie.

C.– 2003/361/EE Gomendioaren definizioekin bat mikroenpresatzat har daitezkeen enpresek basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko sustatzen dituzten inbertsio-proiektuei 15 puntu emango zaizkie.

2.– Inbertsio-proiektu motak.

A.– Proiektuek sektorean duten eragina eta haien berrikuntza- eta enplegu-ezaugarriak kontuan izanik Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak estrategiko eta traktoretzat dituen proiektuei 40 puntu emango zaizkie.

B.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 35 puntu emango zaizkie:

1) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak onartutako plan sektorial estrategikoen arabera sektore edo azpisektore batekoak izatea.

2) Proiektu berriei dagokienez, bost urtez gutxienez bi lanpostu sortzea eta, lehendik abian dauden proiektuei dagokienez, bost urtez gutxienez enpresako langileen urteko batez besteko kopurua % 20 handitzea (aurreko bi urteetako batez bestekoa).

C.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 30 puntu emango zaizkie:

1) Erabiltzen diren lehengaien % 70 gutxienez EAEn ekoiztutakoak izatea.

2) Enpresen helburua, merkatuaren eskariaren arabera, basogintzako beren produktuak sailkatzea eta estandarizatzea izatea.

D.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 20 puntu emango zaizkie:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko basogintza-sektorearekin lehengaiak hornitzeko kontratuzko harremanak sustatzea.

2) Bost urtez gutxienez enpresako langileen urteko batez besteko kopurua % 10 handitzea (aurreko bi urteetako batez bestekoa).

E.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

1) Diruz lagundu daitekeen guztizko inbertsioaren % 50 baino gehiago makina eta instalazioek egitea.

2) Basoak kudeatzeko prozesu jasangarrien esparruan basogintzako produktu eraldatuak zaintzeko katea ziurtatzeko sistemak eta produktu eta prozesuen kalitatea hobetzeko ziurtagiriak ezartzea.

F.– Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 10 puntu emango zaizkie:

1) Laguntzaren helburu den jardueran diharduten langileei prestakuntza emateko planak aurreikustea.

2) Merkaturatzea areagotzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak ezartzea; bereziki, esportazio-merkatuan.

3) Produktu-zorria Estatutik kanpoko Europako herrialdeetako merkatuetan egotea.

4) Bere langile propioak dituen merkataritza-sail bat duten enpresenak izatea.

5) Lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko, negozio elektronikoaren berezko tresnak ezartzea.

32. artikulua.– Laguntzen kuantifikazioa.

1.– Gehienez ere diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 40koa izango da laguntzaren zenbatekoa.

2.– Proiektu bakoitzak aurreko artikuluekin bat lortzen duen puntu kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

a) 10 puntu edo gutxiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 0 lagunduko da diruz.

b) 11 puntutik 25era bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % lagunduko da diruz.

c) 26 puntutik 40ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 10 lagunduko da diruz

d) 41 puntutik 60ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 5 lagunduko da diruz.

e) 61 puntutik 80ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 20 lagunduko da diruz.

f) 81 puntutik 95era bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 25 lagunduko da diruz.

g) 96 puntutik 110era bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 30 lagunduko da diruz.

h) 110 puntu baino gehiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 40 lagunduko da diruz.

3.– Proiektu batek baino gehiagok puntu kopuru bera lortzen badute, ordena honetan emango zaie lehentasuna:

- a) Enpresa edo ekoiztegi berriak sortzeko proiektuak eta lanpostuak sortzen dituztenak.
- b) Merkatuaren eskariaren arabera, basogintzako noren produktuak sailkatzeko eta estandarizatzeko proiektuak.
- c) Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen dituen definizioekin bat enpresa txiki eta ertaintzat har daitezkeen inbertsio-proiektuak.

IV. KAPITULUA

ARRANTZAKO ETA AKUIKULTURAKO PRODUKTUAK ERALDATZEKO ETA MERKATURATZEKO LAGUNTZAK

33. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Laguntzen xedea arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea da, eta maiatzaren 15eko 508/2014 Erregelamenduaren eta Europako Itsas eta Arrantza Funtzaren barruko 2014-2020 aldirako Espainiako Arrantza Sektorerako Programa Eragilearen barruan daude:

2.– Honako hauek dira kapitulu honetako laguntzen helburuak:

- a) Arrantzako eta akuikulturako produktuen merkatuen antolamendua hobetzea.
- b) Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko sektoreetan inbertsioak sustatzea.
- c) Arrantza-industriaren ehundura sendotzea, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta ezaupideen transferentziaren bidez.

34. artikulua.– Onuradunak.

1.– Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun; betiere, artikuluko honen 2., 3. edo 4. kapituluak aipatzen badituzte, kapituluak berak diruz laguntzeko modukotzat hartzen duen jardueraren batean badihardute eta agindu honek xedatzen duena betetzen badute.

2.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko sektorearen barruan, azpisektore hauetakoren batekoak izan beharko dute onuradunek:

- Kontserbak.
- Erdikontserbak.
- Araztegiak, itsas haztegiak eta haztegiak.
- Gazituak, ketuak, aurrez prestatutako arrainak, etab.
- Aurregosiak.
- Azpiproduktuen tratamendua eta eraldaketa.
- Arraina oinarri duten produktuen prestakuntza (saltsak, arrain-suzedaneak, etab.).

3.– Arrantzako eta akuikulturako produktuak merkaturatzeko sektorearen barruan, azpisektore hauetakoren batekoak izan beharko dute onuradunek:

– Beren produktuak gehienbat EAEko portuetan deskargatzen dituzten jatorriko handizkariak (hozkaileurik gabeko biltegiatzea, hotzeko biltegiatzea, izozteko biltegiatzea, etab.).

– Helmugako handizkariak (hozkaileurik gabeko biltegiatzea, hotzeko biltegiatzea, izozteko biltegiatzea, etab.).

4.– Onuradun izateko, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat, mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute pertsonak.

35. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektu motak.

1.– Eraldaketa-sektorean, honelako inbertsioak egiten dituzten proiektu motak lagunduko dira diruz:

a) Energia aurrezten eta ingurumenaren gaineko eragina arintzen laguntzen dutenak; tartean, hondakinen tratamendua.

b) Segurtasuna, higieena, osasuna eta lan-baldintzak hobetzen dituztenak.

c) Gizakiok kontsumitzeko erabili ezin diren arrain-harrapakin komertzialak eraldatzen laguntzen dutenak.

d) Eraldaketa-jarduera nagusietatik sortutako azpiproduktuak eraldatzen dituztenak.

e) Ekainaren 28ko 834/2007 (EE) Erregelamenduaren 6. eta 7. artikuluekin bat akuikultura ekologikoko produktuak eraldatzen dituztenak.

f) Produktu, prozesu eta kudeaketa- eta antolamendu-sistema berri edo hobeak dakartzatenak.

2.– Merkaturatze-sektorean, helburu hauek lortzeko inbertsioak egiten dituzten proiektu motak lagunduko dira diruz:

a) Merkaturatzeko moduko espezieak merkaturatzea.

b) Neurri teknikoak hartuta, populazio komertzialetan nahi gabe hartutako eta deskargatutako harrapakinak merkaturatzea, abenduaren 11ko 1380/2013 (EB) Erregelamenduaren 15. artikularekin eta abenduaren 11ko 1379/2013 (EB) Erregelamenduaren 8.2.b) artikularekin bat.

c) Ingurumenean eragin txikia duten metodoen bidez arrantzatik eta akuikulturatik eskuratutako produktuak merkaturatzea eta, ekainaren 28ko 834/2007 (EE) Erregelamenduak finkatzen dituen baldintzetan, akuikultura ekologikoko produktuak merkaturatzea.

d) Kostaldeko artisau-arrantzan edo lehorrean diharduten arrantzaleek arrantzako produktuak zuzenean merkaturatzea.

e) Produktuak itxuratzea eta ontziratzea.

36. artikulua.– Laguntzen gehieneko zenbatekoak.

1.– Gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50ekoa izango da laguntzen zenbatekoa.

37. artikulua.– Proiektuen balioespena.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak balioesteko eta bakoitzari puntu kopuru bat emateko — proiektu bakoitzaren puntu kopuruaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 36. artikuluaekin bat—, balioespen-irizpide hauetako bat edo hainbat hartuko da kontuan:

1.— Baldintza hau betetzen duten proiektuei 50 puntu emango zaizkie:

a) Estrategikoak izatea eta sektorearentzako bultzada izatea.

2.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 40 puntu emango zaizkie:

a) Erauzketa-sektoreak edo elkarte-izaerako erakundeek sustatutakoak izatea.

b) Gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoko lonja eta portuetako arraina maneiatzen eta merkaturatzen duten enpresek sustatutakoak izatea.

c) Arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldeek lehentasunezko hartutako udalerri batean kokatuta egotea.

d) Enpresa eta ekoiztegi berriak sortzea.

3.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 30 puntu emango zaizkie:

a) Instalazioak lekualdatzea eta hirigunetik kanpo kokatzea.

b) Diruz lagundu daitekeen guztizko inbertsioaren % 50 baino gehiago makina eta instalazioek egitea.

c) Proiektuaren bidez ekoizten denaren % 50 baino gehiago EAEko kalitate-bereizgarriren baten peko produktuak izatea.

4.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 20 puntu emango zaizkie:

a) Mikroenpresen inbertsio-proiektuak izatea, Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

b) Ingurumenaren eta baliabide naturalen babesa eta hobekuntza, baliabideen kontsumo eraginkorra, hondakinak tratatzeko sistemak eta azpiproduktuen kudeaketa eta ustiapen hobeak sustatzea, eta kostaldearen ezaugarri tradizionalak eta baliabideak zaintzen laguntzea.

c) Gutxi ustiatzen diren espezieak baliatzea.

d) Uztailaren 3ko 126/2012 Dekretuarekin bat elikagaigintzako artisau-enpresatzat hartzen diren enpresek egitea inbertsioak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko erauzketa-sektorearekiko kontratuzko harremanak sustatzea.

5.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 10 puntu emango zaizkie:

a) Erakunde juridiko komunen bidez elkarrekin diharduten bi enpresak edo gehiagok abiatutakoak izatea.

b) Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea eta/edo prozesu berritzaileak ezartzea edo arrantza- eta akuikultura-sektorerako metodo berriak garatzea.

c) Emakumeek sustatutako enpresa-ekimenak babestea.

d) Gazte ekintzaileak (41 urtetik beherakoek) arrantza-enpresa berriak sortzea.

e) Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen dituen definizioekin bat enpresa txikitzat hartzen diren enpresenak izatea.

f) Laguntzaren helburu den jardueran diharduten langileei prestakuntza emateko planak aurreikustea.

g) Merkaturatzea areagotzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak ezartzea; bereziki, esportazio-merkatuan.

h) Gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresenak izatea.

i) Bere langile propioak dituen merkataritza-sail bat duten enpresenak izatea.

38. artikulua.– Laguntzen kuantifikazioa.

Proiektu bakoitzak aurreko artikuluekin bat lortzen duen puntu kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

– 10 puntu edo gutxiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 0 lagunduko da diruz.

– 11 puntutik 29ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 10 lagunduko da diruz.

– 30 puntutik 39ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 15 lagunduko da diruz.

– 40 puntutik 59ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 20 lagunduko da diruz.

– 60 puntutik 84ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 30 lagunduko da diruz.

– 85 puntutik 99ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 40 lagunduko da diruz.

– 99 puntu baino gehiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 50 lagunduko da diruz.

V. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA- ETA ELIKAGAIGINTZA-INDUSTRIETAN BESTELAKO INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK

39. artikulua.– Xedea eta helburua

1.– Laguntzen xedea nekazaritzako, arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko industrietan agindu honen II., III. eta IV. kapituluetatik kanpoko inbertsioak egitea da.

2.– Zehazki, 7. artikulua aipatzen dituen inbertsioak arautzen ditu kapitulu honek; betiere, helburu hauetakoren bat badute:

a) 24.1. artikulua aipatzen ez dituen nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.

b) 30.3. artikulua aipatzen ez dituen basogintza-sektoreko inbertsioak.

c) 35. artikulua aipatzen ez dituen arrantza-sektoreko inbertsioak.

3.— Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduarekin eta Batzordearen abenduaren 16ko 1388/2014 (EB) Erregelamenduarekin bat jakinarazi beharrekoak ez diren laguntzen tratamendu bera izango dute kapitulu honetako laguntzek. Bereziki, 702/2014 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua eta 1388/2014 (EB) Erregelamenduaren 41. eta 42. artikulua aplikatuko dira, baita arau bakoitzaren xedapen orokorrak ere.

40. artikulua.— Onuradunak.

1.— Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak izan ahalko dira kapitulu honek arautzen dituen laguntzen onuradun; betiere, kapituluak berak diruz laguntzeko modukotzat hartzen duen jardueraren batean badihardute eta agindu honek xedatzen duena betetzen badute.

2.— Onuradun izateko, Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinarekin eta 1388/2014 Erregelamenduaren I. eranskinarekin bat —mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioa iraultzen dute 702/2014 (EB) Erregelamenduak eta 1388/2014 Erregelamenduak—, mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertaina izan beharko dute pertsonak.

41. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen proiektu motak.

Kapitulu honen ondorioetarako, inbertsio-proiektu mota hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

1.— Eraldaketa-proiektuak.

a) Enpresen ekoizpen- eta merkataritza-alderdiak sendotzeko eta tokiko ingurunean eta ingurune globalean modu eraginkorrean lehiatzeko inbertsio-proiektuak.

b) Produktu sorta berriak garatzeko eta kontsumitzaileek etorkizunean elikadura-arloan izango dituzten beharrei erantzuteko inbertsio-proiektuak.

c) Ekoizpen-prozesuak modernizatzeko, teknologia berriak erabiltzen hasteko eta kudeaketa-teknika- eta -tresna berriak erabiltzen hasi eta enpresen kudeaketa eta antolamendua hobetzeko inbertsio-proiektuak.

d) Lehengaiak, ura eta energia aurrezteko eta ahalik eta hondakin, isuri eta emisio gutxien sortzeko inbertsio-proiektuak.

e) Eraldaketa- eta/edo merkaturatze-defizitak dituzten azpisektoreetan eta hazteko gaitasuna dutenetan, nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoan instalatzeko proiektuak.

2.— Merkaturatze-proiektuak.

a) Elikagaien kalitatea eta segurtasuna handitzeko eta zer merkatu-segmentutan espezializatu eta haren behar eta joerak zein diren identifikatzeko eta jakiteko inbertsio-proiektuak.

b) Lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetze aldera, negozio elektronikoaren esparruko tresnak erabiltzen hasteko inbertsio-proiektuak.

c) Elikadura-produktuen merkaturatzea hobetzeko eta merkatu berrietan (bereziki, nazioartean) sartzeko inbertsio-proiektuak.

42. artikulua.— Proiektuen balioespena.

Kapitulu honek arautzen dituen proiektuak balioesteko eta bakoitzari puntu kopuru bat emateko — proiektu bakoitzaren puntu kopuruaren arabera kalkulatu da laguntza, agindu honen 43. artikuluekin bat—, balioespen-irizpide hauetako bat edo hainbat hartuko da kontuan:

1.— Baldintza hau betetzen duten proiektuei 50 puntu emango zaizkie:

- a) Estrategikoak izatea eta sektorearentzako bultzada izatea.

2.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 35 puntu emango zaizkie:

- a) Nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko gaien eskumena duen sailak onartutako plan sektorial estrategikoen arabera sektore edo azpisektore batekoak izatea.

- b) Erabiltzen diren lehengaien % 70 gutxienez EAEn ekoizitakoak izatea.

3.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 30 puntu emango zaizkie:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen-sektorearekin lehengaiak hornitzeko kontratuzko harremanak sustatzea.

- b) Kooperatibek beren bazkideen produktuen % 70 gutxienez zuzenean merkaturatzea.

- c) Enpresa edo ekoiztegi berriak sortzea.

4.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 20 puntu emango zaizkie:

- a) Diruz lagundu daitekeen guztizko inbertsioaren % 50 baino gehiago makina eta instalazioek egitea.

- b) Mikroenpresen inbertsio-proiektuak izatea, Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

5.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 15 puntu emango zaizkie:

- a) Enpresa txikien inbertsio-proiektuak izatea, Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioak ematen duen definizioarekin bat.

- b) Emakumeek sustatutako enpresa-ekimenak babestea.

- c) Gazte ekintzaileek (41 urtetik beherakoek) nekazaritzako elikagaien enpresa berriak sortzea.

- d) Ekoizleen gehiengoak parte hartzea.

- e) Bere langile propioak dituen merkataritza-sail bat duten enpresenak izatea.

- f) Eraldaketa- eta merkaturatze-katean integrazio-maila bertikal handia izatea eta ekoizpenaren % 70 gutxienez merkaturatzea.

6.— Honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten proiektuei 10 puntu emango zaizkie:

- a) Laguntzaren helburu den jardueran diharduten langileei prestakuntza emateko planak aurreikustea.

b) Merkaturatzea areagotzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak ezartzea; bereziki, esportazio-merkatuan.

c) Gutxienez ekoizpenaren % 10 esportatzen duten enpresenak izatea.

43. artikulua.– Laguntzen kuantifikazioa.

Proiektu bakoitzak aurreko artikuluekin bat lortzen duen puntu kopuruaren arabera, zuzeneko laguntza hau emango zaio:

– 10 puntu edo gutxiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 0 lagunduko da diruz.

– 11 puntutik 19ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 5 lagunduko da diruz.

– 20 puntutik 29ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 10 lagunduko da diruz.

– 30 puntutik 59ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 15 lagunduko da diruz.

– 60 puntutik 79ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 20 lagunduko da diruz.

– 80 puntutik 99ra bitartean lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 30 lagunduko da diruz.

– 99 puntu baino gehiago lortzen dituzten proiektuei dagokienez, inbertsioaren % 40 lagunduko da diruz.

II. ERANSKINA

100.000 EUROTİK BEHERAKO INBERTSIO-PROIEKTUEN BIDERAGARRITASUNARI
BURUZKO TXOSTEN TEKNIKO EKONOMIKOA

Txostenak parametro hauek hartu beharko ditu barnean:

- 1.– Jardueren deskripzio zehatza.
- 2.– Inbertsioak egiteko epea.
- 3.– Inbertsioak egiteko aurreikusitako aurrekontua.

III. ERANSKINA

100.000 ETA 500.000 EURO ARTEKO INBERTSIO-PROIEKTUEN BIDERAGARRITASUNARI
BURUZKO TXOSTEN TEKNIKO EKONOMIKOA

Txostenak parametro hauek hartu beharko ditu barnean:

- 1.– Proiektuaren kokalekua.
- 2.– Proiektuaren sustatzaileen identifikazioa.
- 3.– Inbertsioaren helburuak.
- 4.– Inbertsioak egiteko egutegia.
- 5.– Ekoizpen-prozesuaren eta lortu nahi diren produktuen deskripzioa.
- 6.– Merkaturatze-proiektuei dagokienez, produktuen merkatua eta merkaturatzea.
- 7.– Dagokionean, obra zibilaren, makinen, instalazioen eta bestelako inbertsioen deskripzio laburra.
- 8.– Inbertsioaren balioespen ekonomikoa. Enplegu-sorrera.
- 9.– Enpresaren egoera ekonomikoa. Aurreko bi urteetako balantzea eta emaitza-kontua.

IV. ERANSKINA

EKOIZTEGI BERRI BAT INSTALATZEKO, ERAIKITZEKO EDO ABIARAZTEKO INBERTSIO-
PROIEKTUEN EDO 500.000 EUROTİK GORAKO INBERTSIO-PROIEKTUEN
BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKO EKONOMIKOA

Txostenak parametro hauek hartu beharko ditu barnean:

- 1.– Enpresaren aurrekariak.
- 2.– Sustatzaileak.
- 3.– Enpresaren egitura.
- 4.– Enpresak fabrikatzen eta merkaturatzen dituen produktuak.
- 5.– Egitura komertziala.
- 6.– Egoera ekonomiko finantzarioa. Aurreko bi urteetako balantzea eta emaitza-kontua.
- 7.– Inbertsio-proiektuaren kokalekua.
- 8.– Inbertsioaren helburuak.
- 9.– Inbertsioak egiteko egutegia.
- 10.– Ekoizpen-prozesuaren eta lortu nahi diren produktuen deskripzioa.
- 11.– Dagokionean, obra zibilaren, makinen, instalazioen eta bestelako inbertsioen deskripzio laburra.
- 12.– Egungo salmentak eta bost urtetarako aurreikusitakoak.
- 13.– Inbertsioaren balioespen ekonomikoa. Balio Eguneratu Garbia eta Barne Errendimenduaren Tasa. Enplegu-sorrera.
- 14.– Inbertsioa egin ondoko bost urteetarako aurreikusitako balantze eta emaitza-kontuak.